



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

20. Euskara bereganatzea: erabilera, ahozkoatasuna eta praktika onak HHn

Haur askorentzat eskola izaten da euskararekin harremana duten gunen nagusia. Eta horrela ez den kasuetan ere, eskolari eta irakasleei eskatzen zaie ikasleen euskara gaitasuna bermatzea eta euskararen erabilera indartzea.

Ikastaroan gaur egun irakasleek erabiltzen dituzuen baliabideen osagarri izan daitezkeen beste hainbat tresna aurkeztuko dira.

Horrez gain, argi dago eskolak mugak dituela eta familien laguntza behar-beharrezkoa dela. Elkarlan hori lantzerako begirako ideiak eta tresnak ere aurkeztuko dira.



HHko eta LHko lehen zikloko irakasleentzat.



Ikastaro praktikoa izango da. Zenbait oinarritatik abiatuz hainbat eredu eta adibide ikusiko dira.

LANDUKO DIREN GAIAK

- Euskararen erabilera lantzeko eta ahozkoa garatzeko oinarritzko estrategiak:
 - Irakasle berritsuak
 - Txokoekin lotutako jarduerak
 - Atsedean tartetara begirako proposamenak
- Ahozkoa lantzeko jarduerak laburren plangintza:
 - Testu-generoak aukeratzea eta ekintza komunikatibo laburrak garatzea
 - Adibideak aurkeztea eta garapen progresiboaren aukera ikustea
 - Jarduerak plangintzetan txertatzeko aukerak ikustea
- Mugimendu autonomoan praktika onak hizkuntza gaitasuna lantzerako begira:
 - Ekosistemak
 - Behaketa
 - Esku-hartzeak



Maddalen Aristegi Sanchez

Ebete hizkuntza-zerbitzuetako teknikaria.

Eman izena

